

2018/05/22an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO
BILKURA .

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO
DE LA CORPORACIÓN. Día
22/05/2018.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko maiatzaren 22a, arratsaldeko sei eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaietarako hitz egiteko. Ez da etorri Josu Ezkurdia.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas del día 22 de mayo de 2018, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Josu Ezkurdia.

1.- ESKOL AGENDA 21: 2017/2018 IKASTURTEKO PROPOSAMENAK.

Alkateak ongietorria eman die bertaratutakoei, bereziki, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleei.

Hitza emanda, ikasleen ordezkariak Udalbatzarrari aurkeztu diote 2017/2018 ikasturte honetan URARI buruz egiten dioten proposamena Eskola Agenda 21aren barruan.

Proposamen hori akta honen eranskin gisa doa.

Aurkezpenaren ondoren, Alkateak zorionak eman dizkie proiektuan parte hartu duten guztiei egindako lan hain interesgarriarengatik. Ikasleengana zuzenduta, adierazi die beraiek ere zenbait jarduera hobetu beharko luketela, eta adibide bezala aipatu du ikusi besterik ez dagoela herria nola gelditzen den ur-puxikekin jolasten dutenean. Jakinarazi die Udalak hitzarmen bat sinatuta duela "Ur Agentziarekin" errekaen mantenimenduari buruz, eta horri buruzko informazioa Rafa Bernal zinegotziak eman ahal izango diela. Paperontzi gehiago jartzeko proposamenari dagokionez, argitu du ez dela garbiagoa paperontzi gehiago duena, baizik gehiago erabiltzen dituen, eta ondoren esan du, aurreko urteetan bezala, proposamenak dagokion batzorde informatzailean jorratuko direla, eta datorren ikasturtearen hasieran jakinaraziko zaizkiela beraiek egindako eskaerei erantzuteko hartutako erabakiak eta egindako jarduerak.

Rafa Bernalek bera gaztea zenean erreka kutsatuagoa zegoela eta orain, behintzat, arrain batzuk agertzen hasi direla esan ondoren, adierazi du errekaen egoera betidanik kezkatu duen gaia izan dela, eta jakinda ere oraindik asko dagoela egiteko, eremu horretan edozein jarduerak duen zailtasunen jakitun izan behar garela, eta hartu beharreko neurri gehienak epe ertain-luzerakoak direla.

Nestor Aranek ikasleak zoriondu ditu, eta esan die lan bikaina egin dutela, eta dei egin dio gobernu taldeari planteatutako proposamenei erantzuna eman diezaien hilabeteko epean.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 18:20an. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- AGENDA ESCOLAR 21: PROPUESTAS DEL CURSO ESCOLAR 2017/2018.

El Alcalde da la bienvenida a todos los presentes, en especial a los alumnos/as de los centros escolares de Eskoriatza.

Concedida la palabra, representantes de los alumnos/as presentan al Pleno la propuesta que en este curso escolar 2017/2018 hacen a la corporación en el marco del programa Agenda Escolar 21 y que versa sobre "EL AGUA".

Dicha propuesta se une como Anexo a la presente acta.

Tras la presentación, el Alcalde felicita a todos los participantes en el proyecto por el trabajo tan interesante que han realizado. Dirigiéndose a los alumnos, señala que hay actuaciones por parte de ellos que debieran de ser también mejoradas, y como ejemplo cita el estado en que queda el entorno urbano cuando juegan con los globos de agua. Les informa que el Ayuntamiento tiene formalizado un convenio con "Ur Agentzia", convenio que versa sobre el mantenimiento del río y sobre el que el concejal Rafa Bernal les podrá informar. En cuanto a la propuesta concreta de poner más papeleras, matiza que no es más limpio el que más papeleras tiene sino el que más las usa y, a continuación, hace saber que las propuestas, al igual que en años anteriores, serán tratadas en la Comisión Informativa correspondiente, así como que al inicio del curso que viene se les dará traslado de los acuerdos adoptados y de las actuaciones materializadas en respuesta a las solicitudes cursadas.

Rafa Bernal, tras señalar que cuando él era joven el río estaba más contaminado y que ahora ya empiezan a verse algunos peces, manifiesta que el estado del río es un asunto que siempre le ha preocupado y que partiendo de que todavía queda mucho por hacer hay que ser consciente también de la complejidad que tiene cualquier actuación en su ámbito, que la mayor parte de las medidas a adoptar son a medio-largo plazo.

Nestor Arana felicita a los alumnos y le dice que han hecho un excelente trabajo y emplaza al equipo de gobierno a que en el plazo de un mes de respuesta a las propuestas que han planteado.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:20 horas.
De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

ERANSKINA-PROPOSAMENAK

Aurten, Eskola Agenda 21 programaren baitan, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleok, URA gaia landu dugu. Otsailetik maiatzera arte uraren inguruan egindako lana eta azterketa horretako ondorioak erakutsi eta hobetzeko zenbait proposamen egitera gatoz. Hona hemen mailaz maila egindakoa.

2. mailako ikasleak Udaletxeko eraikinetako iturri eta komunetan ura aurrezteko gailurik badagoen aztertu dugu.

Azterketa egin eta gero atera ditugun ondorioak hauek dira:

- Gure ustez ura aurreztea garrantzitsua da, ur gabe ezin gara bizi eta.

Udalari proposatu nahi dioguna, hauxe da:

- Liburutegian, ludotekan eta kultur etxean ura aurrezteko gailuak jartzea.
- "URA ZAINDU EZ XAHUTU" ipintzen duten Txartelak ipintzea.
- Komunak eta iturriak konpondu behar direnean, kontutan hartzea, ura aurrezteko gailuak ipini behar direla.

4. mailako ikasleek ur mota desberdinak dituzten iturburuen azterketa egin genuen.

Ikusi genituen iturburuak hauek izan ziren:

- Antontxu, Urets, Ugazua eta Iturrizar.

Iturri bakoitzean hau aztertu genuen:

- Kokapena, Iturburuen egoera, uraren zaporea, usaina, inguruko kolorea eta ur mota.

Hau egin ondoren ondokoa eskatu nahi dizuegu:

- Gaizki dauden iturburuak konpontzea eta ingurua zaintzea.
- Iturburu bakoitzean uraren informazioa egotea, adibidez: Uraren ezaugarriak, onurak, zenbat edan dezakegun, nondik datorren, ...
- Iturburuen ibilbidearen berri ematea, herrian eta bailaran zabaltzea eta bidea ondo markatzea.
- Antontxu iturria garbitu konpondu eta lehen egiten zen jaia berreskuratzea.

- Iturburuak zaintzen dituzten pertsoneri eskerrak ematea.

6. mailakook ibaia aztertu dugu. Batzuk erreka ertzeko basoa eta besteok uraren kalitatea.

Ibai ertzeko landaretza oso garrantzitsua da. Landareek oxigenoa emateaz gain itzala ere ematen dute. Ur barruan bizi diren animaliak ura freskoago daukate, Zuhaitzen sustraiak lurra eutsi egiten dute eta animalientzako bizitoki eta pasabide dira.

Eskoriatzan badaude landare inbaditzaile batzuk; Santa Marinaran Sasi-Akazia eta Bolibar errekan Fallopi Japonika ikusi ditugu.

Uraren kalitatea aztertu dugunok. Uraren TENPERATURA, pHa, ABIADURA, OXIGENO DISOLBATUA, NITRATOAK ETA FOSFATOAK neurtu ditugu eta emaitzak egokiak izan dira.

Honez gain uretan topatu ditugun BIOADIERAZLEAK hauek izan dira: EFEMEROPTEROAREN LARBAK, TRIKOPTEROAREN LARBAK, GASTEROPODOAK ETA PLANARIAK. Azken hauek izan ezik besteak uraren kalitate ona adierazten dute.

Aztertu ditugun, puntu guztiak kontutan hartuta, gure ibaiaren uraren kalitate fisiko kimikoa ona dela esan dezakegu.

Egoera hobetzeko udalari egin nahi dizkiogun proposamenak hauek dira:

- Errekaren ibilbidean, ez dauden tokietan, bertako zuhaitzak landatzea.
- Landare inbaditzaileak sustraieretatik ateratzea (ez moztu).
- Erreka garbitzea.

DBH 1. mailako ikasleok 2017. urteko Eskoriatzarren ur kontsumoa eta Udalak ordaintzen duen uraren kontrola aztertu ditugu. Kontuak aterata gero ikusi genuen, Urkulutik etortzen den uraren eta Udalak fakturatzen duenaren artean zegoen diferentzia, 167.611 (ehun eta hirurogeita hamazazpi mila seiehun eta hamaika) metro kubikokoa zela. Urkulutik jasotzen den uraren ia %40a (%39,40).

Ura oso garrantzitsua denez, zaindu beharra daukagu, gutxiago gastatuz. Baina horretarako non eta zertan gastatzen dugun jakin beharra dago. Diferentzian dagoen ur hori kontrolatzeko, proposamen hauek egiten ditugu:

- Ura gastatzen den toki guztietan kontagailuak ipintzea, tutuak eta deposituak kontrolatzea, matxurak aurkitzea.
- Urtean behin edo aldiro behaketa sakon bat egitea ur azpiegitura guztian. Ihesak lokalizatzeko kamarak jartzea.
- Kontagailuak jartzea iturri guztietan eta lorezainek gastatzen duten ura kontabilizatzea.
- Lorezainek ureztatzeke euri ura jaso ahal izateko biltegiak jartzea.
- Tutueria sendoagoak ipintzea.

DBH 2. mailako ikasleek ura erabili eta gero zer gertatzen den ikusi dugu. Horretarako araztegi bat bisitatu dugu, Fagor Ederlanekoa. Nahiz eta ura arazi, ezin da guztiz garbitu, beraz, hartu dugunean baino zikinagoa bueltatzen dugu. Horregatik garrantzitsua da ahalik eta ur gutxien erabiltzea, komuna ez erabiltzea zakarrontzi modura, hondakinak dagokien lekuan botatzea, botikak etab.

Baina guk egin dezakegunaz aparte, badago udalari eskatzea nahiko geniokeen zerbait ere:

- Pertsona bat jar dezazuela lanean erreka garbitzen.
- Zakarrontzi gehiago jar ditzazuela.
- Sentsibilizazio kanpainak egin ditzazuela, komunetik behera zer ez bota jakiteko.

DBHko 3. mailako ikasleek ibaiaren arroa aztertu dugu eta ikasi dugu, bertan egindako jarduera guztiek daukatela eragina errekan. Errekaren kalitatea bermatzeko eta sor ditzakeen kalteak gutxitzeko, araudi bat dago eta konturatu gara, Eskoriatzan, ez direla zenbait baldintza betetzen; batetik, zortasun eremuak leku gutxitan betetzen dira, bakarrik Santa Marinaran eta Unibertsitatean, uholdeak gertatzen direnean kalteak handiagotuz. Bestetik, ibai inguruko lurra

zigilatuta dagoenez, ur kopuru gutxiagorekin gertatzen dira uholdeak, eta eragin ditzaketen kalteak handiak dira, erreka inguruan kokatu baititugu etxebizitzak, lantegiak, eliza... Inguruko pinudietan egiten diren fumigazioek ere uraren kalitatean eragin dezakete, biodibertsitatea galtzea...

Honez gain erreka kanalizatzeko eginda dauden pareta gehienek ez dute legea betetzen eta zementuzkoak dira, harrizkoak izan ordez.

Hau dela eta Eskoriatzako udalari hau proposatu nahi diogu:

- Badakigu, eraikita dagoena aldatzea oso zaila dela, baina etorkizunean:
- Legea betearazi
- Hormak egin behar direnean, landaretza irtetea onartzen dutenak izan daitezela. Harrizkoak.
- Udalak lurralde antolamendua egiten duenean, erreka kontutan hartzea eta lurra zigilatzen ez duten zoruak ipini, ..

Bukaera emateko esan behar dugu, ikasleok ere konpromiso batzuk hartu ditugula, hona hemen zeintzuk diren:

- Ura aurrezten saiatuko gara, dutxan, haginak garbitzerakoan, xaboia eman eta orrazten ari garen bitartean, txorrota itxi egingo dugu.
- Erreka garbitzeko konpromisoa hartzen dugu eta hondakinak behar den tokira botako ditugu. Lurrean daudenak jaso eta hauek ere dagokien tokira botako ditugu.
- Ura ahal den gutxien zikinduko dugu eta komunitik behera ez ditugu botikak eta toallatxoak botako. Komuna ez da zakarrontzia eta.